

Biodibertsitatearen Kontserbazioa Olarizuko Lorategi Botanikoan Conservación de la Biodiversidad en el Jardín Botánico de Olarizu

XX. mendearen erditik aurrera, giza jarduerak eragindako ingurumenaren nariaduraren ondorioz, biodibertsitatearen galera larria eman da. Horri Seigarren Suntsipena deitu zaio. Egoera horren aurrean gora egin du kontzientzia ekologikoak, eta basoko flora zaindu beharra ekarri du. Horrenbestez, Lorategi Botanikoak kontserbaziora eta ingurumen-hezkuntzara bideratutako gune bilakatu dira.

Olarizuko Lorategi Botanikoa misio jakin batekin sortu da: "Tokiko, eskualdeko, Europako eta munduko landare-biodibertsitatea kontserbatzea, ezagutzera ematea eta balioa ematea"

Desde mitad del s. XX, el deterioro ambiental fruto de la actividad humana, ha provocado una grave pérdida de biodiversidad, que se ha definido como la Sexta Extinción. Esta situación ha provocado un aumento de la conciencia ecológica y la necesidad de preservar la flora silvestre, convirtiendo a los Jardines Botánicos en centros dedicados a la conservación y la educación ambiental.

El Jardín Botánico de Olarizu ha sido creado con una misión: "Conservar, divulgar y poner en valor la biodiversidad vegetal local, regional, europea y global"

Olarizuko Lorategi Botanikoko Landare Germoplasmaren Bankua: Biodibertsitate Bankua

Olarizuko Lorategi Botanikoko Landare Germoplasmaren Bankuan, hazien bilduma tenperatura baxuan eta hezetasun-baldintza egokietan gordetzen da, haziek luzaroan eutsi diezaioten ugaltzeko gaitasunari.

Germoplasma Bankua funtsezkoa da biodibertsitatearen galerari aurrea hartzeko, izan ere, desagertzeko arriskuan diren espezieen etorkizuna bermatzen baitu, *ex situ* (ingurune naturaletik kanpo) kontserbatzen direla ziurtatzen du, eta *in situ* (ingurune naturalean) kontserbatzeko neurriak sustatzen ditu.

Germoplasma Bankuaren helburu nagusia honako hau da: Arriskuan den basoko flora, endemikoa dena, bakana, bitxia eta Euskal Autonomia Erkidegoko interes komunitarioko Habitatatetaz berezkoa dena kontserbatzea.

El Banco de Germoplasma Vegetal del Jardín Botánico de Olarizu, un Banco de Biodiversidad

El Banco de Germoplasma Vegetal del Jardín Botánico de Olarizu alberga una colección de semillas conservadas en condiciones de baja temperatura y humedad para que mantengan su capacidad reproductiva durante largos períodos de tiempo.

El Banco de Germoplasma es esencial para prevenir la pérdida de biodiversidad, garantizando un futuro a las especies en peligro de extinción, asegurando su conservación *ex situ* (fuera del medio natural) y apoyando las medidas de conservación *in situ* (en el medio natural).

El Banco de Germoplasma tiene como principal objetivo: La conservación de la flora silvestre amenazada, endémica, rara, singular y propia de los Hábitat de interés comunitario de la Comunidad Autónoma del País Vasco y territorios circundantes.

Arabako Lautadako Harizti Irletan berezkoa den eta arriskuan dagoen flora Kontserbatzeko eta Birsartzeko Programa

Duela 60 urte Arabako Lautadan baso zabalak ziren nagusi, baina nekazaritza mekanizatzearekin eta hiriak zabaltzearekin batera, baso eremuok murriztuz joan ziren eta sakabanatutako baso-masa txikietan zatituta gelditu ziren. Biodibertsitatearen galera nabarmena izan zen. Dena den, oraindik irauten duten basoek (baso-irlek) espezie- eta habitat-aberastasun handia gordetzen dute. Horregatik, Garrantzi Komunitarioko Leku izendatu zituzten eta Natura 2000 Europako Sareak babesten dituen guneen artean daude.

Ondare natural hori zaintze aldera finkatutako Landare Germoplasmaren Bankuaren kontserbazio-programari esker hainbat lorpen izan dira:

- 105 espezieen haziak kontserbatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan ezagutu den *Galium boreale* espeziearen hirugarren populazioa berrakurritzea eta berreskuratzea, duela 30 urte galdutzat jotzen zena.
- Zalla ibaian uretako txiribiaren (*Berula erecta*) populazioa handitu dela egiaztatu da. Espeziea desagertzeko arriskuan dago eta EAEn beste populazio bat besterik ez da aurkitu.
- *Littorella uniflora* arriskuan den espeziea landatzea, hedatze begetatiiboaren bidez.
- Askari-lorea (*Merendera montana*) eta arriskuan diren 5 espezie ernetzea, horien landarea sortzea eta landatzea: *Galium boreale*, *Berula erecta*, *Senecio carpetanus*, *Narcissus gr. pseudonarcissus* eta *Narcissus bulbocodium*-en *citrinus* subespeziea.

Programa de Conservación y Reintroducción de la flora amenazada y característica de los Robledales Isla de la Llanada Alavesa

Hace 60 años la Llanada Alavesa contaba con grandes extensiones de bosques que debido a la mecanización agrícola y el crecimiento urbano fueron reducidas y fragmentadas en pequeñas masas forestales aisladas, provocando una gran pérdida de biodiversidad. Sin embargo, los bosques que se mantienen (bosques isla) todavía conservan una elevada riqueza de especies y hábitats, por lo que fueron declarados Lugares de Importancia Comunitaria y forman parte de los espacios protegidos de la Red Europea Natura 2000.

El programa de conservación del Banco de Germoplasma Vegetal establecido para preservar este patrimonio natural ha logrado:

- La conservación de semillas de 105 especies.
- El redescubrimiento y recuperación de la tercera población conocida de *Galium boreale* en el País Vasco, dada por desaparecida desde hace 30 años.
- La constatación del aumento de la población del río Zalla de la berra o chirivía de agua (*Berula erecta*), una especie en peligro de extinción y con tan sólo otra población conocida en el País Vasco.
- El cultivo mediante propagación vegetativa de la especie amenazada *Littorella uniflora*.
- La germinación, producción de planta y cultivo de la quitameriendas (*Merendera montana*) y de 5 especies amenazadas: *Galium boreale*, *Berula erecta*, *Senecio carpetanus*, *Narcissus gr. pseudonarcissus* y *Narcissus bulbocodium subsp. citrinus*.



Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak diruz lagundutako programa. Programa subvencionado por el Dpto. de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.